




HASI GAZTE Sarien oinarriak

MAILA:
**EKONOMIA SOZIAL
GAZTE EKIMEN
ONENA**



GIZARTE EKONOMIA GAZTE SARIA
HASI GAZTE
PREMIO JOVEN ECONOMÍA SOCIAL

Ekonomia Soziala, euren kideen talde-interesa zein ekonomia edo gizarte interes orokorra helburu duen jarduera ekonomiko eta enpresarialen multzoa da. Hori dela eta, abiarazten dituztenentzat eta orokorrean Gizarte osoarentzat onura lortzea helburu duten ekonomia sozialeko enpresak dira sektore honen kide.

Ekonomia sozialeko enpresak honako hauek dira: elkarlaneko kooperatiba eta mikrokooperatibak eta lan-sozietateak. Talde enplegua dute helburu, eta horretarako, kapitalean, emaitzetan eta erabakietan langileen parte-hartzea sustatzen dute. Langileriaren gehiengo zabala bazkide da eta kapitalaren zatirik handiena langileena da.

Lehenengoa: DEIALDIAREN HELBURUA

Cein, Anel, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua (NKGI) eta Laboral Kutxak "Hasi Gazte. Ekonomia Soziala Nafarroa Gaztea Saria"-ren lehenengo edizioa antolatu dute, eta hedatze lanetan Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren (NKGI) laguntza izan dute. Sariaketa honen helburua ekonomia sozialaren alorrean, gazte Enpresa-sorkuntza proiektuen sortzea eta irautea da, gazteen langintza eta garapen profesionalerako aukerak hobetzeko mekanismo moduan.

BIGARRENA: Maila

Ekonomia Sozial Gazte Ekimen Onena

Ekonomia Sozial Gazte Ekimen Onenari saria da, pertsona ekintzaile gazteek ekonomia sozialeko enpresa proiektu ona martxan jartzea du helburu, bideragarria eta abiatzeko aukerak dituen.

Hirugarrena: SARIAK

Enpresa finalistetako kide guztiek aitortpena eta Mondragon Korporazioaren instalazioak bisitatzeko aukera izanen dute, bertako esperientzia kooperatiboa ezagutzeko.

Enpresa irabazleak 3.000 euroko saria jasoko du dirutan.

Horrez gain, "Ekonomia Sozial Gazte Ekimen Onena" sariaren irabazleek Nafarroako ekintzaileen Kooperatiban parte hartuko du ezinbesteko baldintzak betez gero.

Nafarroako Ekintzaileen Kooperatiba, Ekonomia Sozialeko enpresak sortzen laguntzeko Anel-ek martxan jarritako tresna berritzailea da. Tresna honen bitartez ekintzaile taldeek enpresa-sorkuntzan esperientzia berriak biziko dituzte eta enpresaren jarduera modu erreal eta legalean merkaturatuko dute ekonomia sozialeko enpresa sortu baino lehen, esaterako, bezeroak bilatzen ahalko dituzte eta Gizarte Segurantzari alta hartuta fakturatzen ahalko dute, betiere, profesional talde baten aholkularitzarekin.

Sariei dagokien araudi fiskalaren konplimenduan, sariak dagozkien atxikipenak izanen

dituzte.

Saria Enpresari emanen zaio zuzenean edo, proportzionalki, parte-hartze eskaeran identifikatutako proiektuko kide guztiei.

Saria ezinen da ez esleitu, eta ez transferitu, eta jasotzeko momentuan indarrean dagoen fiskalitatearen mende egonen da.

Epaimahaiak saria hutsik uzten ahalko du, aurkeztutako enpresek eskatutako gutxieneko mailara iristen ez direla uste badu..

Laugarrena: PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK

- Zerga-egoitza Nafarroan izatea.
- Betekizun fiskalak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea. Baldintza hauek betetzen dituztela adierazten duen zinpeko deklarazioa aurkeztu beharko dute. Enpresa irabazlea izatekotan honakoak aurkeztu beharko dituzte:

*Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak emandako ziurtagiria, hilabete bat baino gutxiagoko aurrerapena duena, Nafarroako Ogasunarekin zerga-betebeharrak egunean dituela adierazten duena. Dokumentazio hau ez da aurkeztu beharko NKGI-ri Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuan zuzenean egiaztatzeko baimena emanez gero.

*Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako ziurtagiria, hiru hilabetetik beherako aurrerapena duena, Gizarte Segurantzarekin zerga-betebeharrak egunean dituela adierazten duena. Dokumentazio hau ez da aurkeztu beharko NKGI-ri Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian zuzenean egiaztatzeko baimena emanez gero.

- Ekonomia Sozialeko Enpresa Proiektua garatzen ari diren 31 urtetik beherako pertsonak (elkarlaneko kooperatiba eta mikrokooperatibak eta Lan-sozietateak).
- Proiektuak 2 sustatzaile izanen ditu gutxienez.
- Pertsona talde bat izanez gero, aski izanen da haietako bat 31 urtetik beherakoa bada.
- Proiektuak ez du Ekonomia Sozialeko Enpresa bezala sortua izan beharko (elkarlaneko kooperatiba eta mikrokooperatibak eta Lan-sozietateak) 2018ko urtarrilaren 1ean, sortze datatzat sorrerako notario-eskriuraren data hartuta.

Bosgarrena: AUKERATZE-PROZESUA

ANEL-ek, ekonomia sozialeko enpresak biltzen dituen enpresari-elkarte gisa, 5 proiektu edo enpresako lehen aukeraketa eginen da ezarritako ebaluazio irizpideen arabera. Aukeratutako proiektuen sustatzaileentzako deialdia eginen da epaimahai baten aurrean euren enpresak defendatzeko. Proiektu edo enpresa bakoitzaren aurkezpena 10 minutukoa izanen da, eta beste 5 minutu izanen ditu epaimahaiaren galderei erantzuteko.

Lehen aukeraketa honetako proiektu edo enpresek CEIN-en eskutik banakako

formakuntza/feedback saio batean parte hartzeko aukera izanen dute epaimahaiaren aurreko defentsa baino lehen, aurkezpenak hobeki egin ahal izateko.

SEIGARRENA: Epaimahaia eta Epaia

LABORAL KUTXA, ANEL, NKGI eta CEIN erakundeetako kideek osatutako epaimahaia sortuko da aukeratutako proiektu edo enpresak ebaluatzeko.

NKGI-k egingen du epaimahaiarentzako deialdia zehaztutako leku eta datan.

Aukeratutako artean epaimahaiak hiru Proiektu edo Enpresa finalistak aukeratuko ditu hautagaitza bakoitzaren ebaluazioaren arabera. Horretarako, honako oinarrizko balorazio irizpideetan oinarrituko da:

- Proiektu edo Enpresaren bideragarritasun tekniko eta komertziala.
- Ekonomia Sozialaren oinarrien, baloreen eta filosofiaren garapena.
- Proiektu edo Enpresaren aurrerapen errealaren maila.
- Aurkeztutako Proiektu edo Enpresa garatzeko kompetentzia eta esperientzia duten ekintzaileen parte hartzea.

Epaimahaiak beharrezkotzat hartzen dituen dokumentazio eta azalpen guztiak eskatzen ahalko dizkie enpresa parte-hartzaileei, proiektuen edo enpresen ebaluazioa egokia izan dadin.

Epaimahaiak hartutako hitzarmenak apelaezinak dira, eta ez dago hauek inola ere aurkaratzerik.

Epaimahaiak azaroaren 23aren aurretik aukeratutako hiru proiektu edo enpresa finalistek bizpahiru minutuko bideo bat grabatuko dute, abenduaren 3aren aurretik, eta NKGI-ren webgunean sariketa honetarako espres sortutako atal batean egonen da ikusgai. Aipatu webgunean bozka sistema ezarriko da maila bakoitzeko proiektu edo enpresa irabazlea aukeratzeko. Webgunean jasotako bozkek osotara lortutako bozken %50a izanen dira.

Sari banaketa ekitaldia publikoa izanen da. Bertan bildutakoek enpresa irabazlea bozkatzen ahalko dute hiru proiektu edo enpresa finalisten artean. Horretarako, hiru finalistek grabatutako bideoak ikusiko dira eta bozkatzeko sistema jakin bat ezarriko da. Bozka hauek izanen dira osotara lortutako bozken gainerako %50a.

Zazpigarrena: HAUTAGAITZEN AURKEZPENA

Hautagaitzen aurkezpenerako epea 2018ko urriaren 2an hasiko da 10:00etan eta 2018ko urriaren 22an amaituko da 14:00etan.

Hautagaitzak online aurkeztu beharko dira. Oinarri hauetan erantsitako parte hartze eskaera bete beharko da, eta, behin beteta, www.deporteyjuventudnavarra.es webgunean aurki daitekeen inprimakiari erantsi beharko zaio.

Hautagaitzaren aurkezpenak honako baldintzen onarpena dakar:

Proiektu edo Enpresa parte-hartzaileek datu pertsonalen edonolako aldaketa komunikatzeko konpromisoa hartzen dute, hauek beti eguneratuak eta akatsik gabe egon daitezzen. Halaber, parte hartzen duten enpresek tazituki aitortuko dute emandako datuak egiazkoak eta zehatzak direla.

Parte-hartzaileen irudien jasotze eta jartzea baimenduko dute. Euren irudi, ahots, izen eta adierazpenen erabilera baimenduko dute, ikus-entzunezkoa, argazkikoa edo paperezkoa, beste hainbat euskarriren artean, asmo sustatzaile edo publizitarioekin, edozein medio, euskarri eta ustiatze formaturen bidez, muga geografikorik, denborazkorik edo bestelakorik gabe, euren parte-hartzaile edo irabazle egoeraren berri emateko, egokitzat hartutako medioen bitartez. Aurreko baimena doakoa izanen da eta ez du inolako ordainik izanen parte-hartzailearentzat.

ZORTZIGARRENA: Datu babesia

Oraingo deialdian parte hartuko duten pertsona edo enpresek, parte-hartze eskaera betetzean aurkeztutako datu pertsonalak fitxategi batean sartzeko baimena emanen dute. Fitxategi honen helburua deialdian parte-hartzea kudeatzea izanen da, Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak dioenaren arabera.

NKGI, Anel, Cein eta Laboral Kutxak enpresa parte-hartzaileetako pertsonen irudia eta datuak erabiltzeko eta argitaratzeko baimena izanen dute, webgunean edo bestelako komunikabideetan hedatuak izateko helburuarekin.

BEDERATZIGARRENA: Konfidentzialtasuna

NKGI, Anel, Cein eta Laboral Kutxak aurkeztutako proiektu edo enpresen konfidentzialtasuna bermatzeko konpromisoa hartuko dute. Hala ere, proiektu edo enpresen ideia orokorrak erabiltzen ahalko dituzte sarien promozio eta hedatze lanetarako.

HAMARGARRENA: Oinarrien onarpena

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauen erabateko onarpena dakar, eta baita epaimahaiak edo antolakuntzak hauen inguruan har dezakeen edonolako erabakiak ere. NKGI, Anel, Cein eta Laboral Kutxak oinarri hauek aldatzeko eskubidea gordeko dute.



Informazio gehiago eta kontaktua


NAFARROAKO KIROLAREN ETA GAZTERIAREN INSTITUTUTA
www.deporteyjuventudnavarra.es

LABORAL KUTXA
www.laboralkutxa.com

ANEL
www.anel.es

CEIN
www.cein.es





GIZARTE EKONOMIA GAZTE SARIA
HASI GAZTE
PREMIO JOVEN ECONOMÍA SOCIAL

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

Nafarroako Kirolaren eta
Gazteriaren Institutua



Instituto Navarro de
Deporte y Juventud



LABORAL
kutxa

Qin

anel

Empresas de Economía Social de Navarra
Nafarroako Gizarte Ekonomien Enpresak